

Zergatik ospatzen da martxoaren 8an emakume langileen nazioarteko eguna?

Emakume langilearen nazioarteko eguna da martxoaren 8a. Egun horretan, emakumeen eta gizonezkoen berdintasunaz gain, jendarte eredu parekide baten aldarrikapena egiten da. Egin dezagun atzera, baina, eta ikus dezagun zergatik ospatzen den gaurko egunez eta zeren omenetan.

1908an lan eskubideen alde

1908ko martxoaren 8an, 146 emakume langile erreta hil ziren New Yorkek Cotton lantegian. Dirudienez, soldata baxu eta lan baldintza txarreatatik protestan ari ziren, eta lantegi barruan egiten ari ziren itxialdia uzteko, kanpotik molotov koktelak jaurti zizkieten.